

DENBORAREN TXOTXONGILO OMEN GARA

Iraide Mitxelena Rivero

Errenteria

Ttan-ttan, ttan-ttan...
Malkoak masailetik behera suizidioan
sinfonia ilaun eta atonal batean,
galbidera zuzenduriko intziri zein deiadarrekin.
Tik-tak, tik-tak...
Galdetu diot,
termodinamikaren bigarren legea akort betetzen
duen erlojuari,
 $dS \geq 0$,
ea bizirautea zilegi den bederen.
Ez dut erantzunik behar izan,
bere kadentzia monotonon ostendu baita,
inoiz baino errukigabeago.

(Nor gara?)

Surflari ezezaguna
(errealitatea arrotz egiten zaien) amets
tolesgabeen sokaren gainean
dabilen funanbulista da,
olatuen sosegu kresaltsuan
igeri egiteko irrikitan.
Ez daki, baina,

olatuak handi geratzen zaizkiola;
bere izerdi-tantek uhinez beteriko
kafearen mingostasunean ezkututako sentimendu
hitsak
dira bere sosegua mugarri.

Piano-usaina dario aire melankoniatsuari,
izenik bako maitale bat maitasunaren osotasun
osoegia
partitura eskas batera mugatzen da ari.
Saiakera antzuagorik...!
Maitasuna horixe besterik ez balitz,
gaitz erdi.
Galde diezaiela eguzkiari goizero diosala egiten
dioten
lorategian *okupa* gisa dauden loreei.
Haiek bai jakintsu,
bai amoros!

Marka ezezaguneko zigarroa
samintasunaren mugagabetasunean ito,
eta ahoak kanporatutako ke-kiribilak
sabaian dira irristatzen trakeski.
Bizitza *ostia* handiagorik ere emana da.

Tik-tak, tik-tak...

Lasai, nik esango dizut nor garen:
sasi-amets liriko eta
egia absolutuaren distopiaren pentagraman
gara sol.
Bulkadaren energia zinetiko eta

senaren marruskadura-indarraren
arteko lehian
gaude hor.
Erloju-ardatz eta bihotz-taupaden arteko
sinfonian
gara nor.
Galkor.
Hilkor.

Tik-tak, tik-tak...

Aaiii, denbora...
amonaren masaileko zirrikituen bidaiari,
azukrezko maindirez estalitako ilearen margolari...

(Zertarako?)

Gustura galdetuko nioke,
aintziraren murmurioa eta zaurgarritasunaren
rapsodiak eratutako polifoniari...,
zentzua ezerezean galdu duen whisky botilari...,
zure begiek igorritako distira eta pertsianako
zirrikituetatik bahetzen diren izpien arteko
norgehiagokari...,
ikararekin topa egitera bultzatu ninduen
ortzimugari...,

ZERGATIK???

Halere,
zertarako ase ene duda-mudak,
jakintza hutsalkeria ustelaren simetria axiala baino
ez bada?

Gainera,
bizitzaren trenak jakintasunean geltokirik (edo
astirik) ez duelakoan nago,
(gure) ezjakitearen aitopen-eza (gure) ergeltasun
amaigabeaz horditzen baita.

Nire usteak ustelak balira...
Oro begitazio psikozirikatzailea besterik ez balitz...

Tik-tak, tik-tak...

Atzoegiko kontuak alde batera utziz,

ORAINA BADOA,

IHES EGITEN DIGU

IRAGANERANTZ,

DENPORAK HILTZEN GAITUEN ARTE.

Eta hortxe ulertuko dugu izango garen
ahantzurarantz doan denbora baino ez garela.

Gainerakoa,
literatura da.